

**Audioaren erreferentzia:** Bagoaz A2B20 Txangoa antolatzen

**Maila:** A2

**Helburuak:** Mintzamenean, lagunartean zein senideen artean lekuen, paisaien deskribapen xume eta objektiboak egiteko gai izatea, oinarrizko konparazio simple batzuk eginez. Entzumenean, lagun edo senideek pertsoneri eta tokiei buruz egindako deskribapenak ulertzeko gai izatea.

**Funtzioak:** Lekuak deskribatzea: zerbait non dagoen.

**Lexikoa:** Eraikina, etxea, etxebizitza, museoa, mendia, txaleta, errepidea, trafikoa, parkea, auzoa, ikuspegia, bistak.

**Adierazpide linguistikoak:** Erlatibozko esaldiak. Erakusleak. Adberbioak (aurrez aurre, ondoan, ezkerretara, urrutira, aurrean, goian, atzean, behean, eskuinetara). Adjektiboak: zoragarria, lasaia, polita, txukuna, ederra, paregabea

**Azken ekintza:** Nork bere etxeko terrazatik ikusten dituen bistak deskribatuko ditu.

## 1- ENTZUN AURRETIK

### 1.1 Mendizaleak aurrera

Josuk eta Amaiak mendira joateko planak egingo dituztela-eta, ikasleei mendizaleetasunari buruzko galdera batzuk aurkeztuko dizkiegu, nork bere iritziarekin bat datorrena aukera dezan. Nahi dutena idazteko lekua ere badute, aurreikusitako aukerak gustuko ez badituzte, galderari bakarrik erantzun ondoren talde handian komentatuko dituzte erantzunak eta gelako ikaslerik mendizaleena nor den erabaki.

### 1.2 Esamoldeak

Bideoan erabiliko dituzten esamoldeak eta hainbat argazki dituzte ikasleek elkarrekin lotzeko. Kontuan izan 2 eta 3. argazkiak nahiko antzekoak direla eta ondorioz, bata zein bestea izan daitekeela *Porru eginda nago* eta *Hau da ajea!* esaldiekin lotzeko modukoa.

### Erantzunak:

**A ze buruko mina! 1**



**Porru eginda nago 2/3**



<p><b>Hau da ajea! 2/3</b></p>		<p><b>Ez daukat arrastorik 4</b></p>	
<p><b>Txintxo-txintxo nago 5</b></p>		<p><b>Goiz-pasa joan gara 6</b></p>	

Egin duten aukera beste ikasle batekin komentatzea gomendatuko diegu ikasleei. Horretaz gain, aurkeztutako esamoldeak ezagunak zaizkien galdetuko diegu. Ikasi berri dituzten esamoldeak koadernoan edo portfolioan jasotzeko eskatuko diegu ikasleei.

## 2- ENTZUN BITARTEAN

### 2.1 EGIA ala GEZURRA?

Bideoaren lehen zatian ikusitakoa kontuan izanda, eskainitako esaldiak EGIA ala GEZURRA diren erabakiko dute ikasleek. Bakarka erantzun ondoren, gelakide batekin konparatuko dituzte erantzunak.

**Erantzunak:**



- 1.- EGIA
- 2.- GEZURRA
- 3.- EGIA
- 4.- GEZURRA
- 5.- GEZURRA
- 6.- GEZURRA
- 7.- EGIA
- 8.- EGIA

### 2.2. Galderei erantzun



  Bideoaren bigarren zatian ikusitakoa kontuan izanik, galderei erantzungo diete ikasleek.

**Erantzunak:**

- 1.- Ezagutzen al ditu Josuk terrazatik ikusten diren mendiak? Ez, Josuk ez ditu mendiak ezagutzen.
- 2.- Zer esan du Amaiak Mendizorroztz mendiari buruz? Antenaz beteta dagoela eta ikuspegi ederra duela itsaso aldera.
- 3.- Eta Arratzain mendiari buruz? Mendi berezia dela, tontorrean lubaki bat daukalako.
- 4.- Zer da lubaki bat? Soldaduak babestuta egoteko lurtean egiten ziren zuloak (trintxerak)

  Erantzunak idatzitakoan, lagun batekin komentatuko dituzte.

2.3 Nork esan du?    

  Bideoaren hirugarren zatia ikusi bitartean, aukeran dauden esaldiak nork esan dituen (Josuk ala Amaiak) aukeratuko dute

**Erantzunak:**

Oinez joango gara-**Amaiak**


Motoz joango gara-**Josuk**

Izterraren atzeko aldean mina dut-**Josuk**


Alfer hori!-**Amaiak**

Oinetako egokiak jantzi eta kito!-**Amaiak**

Ibiliz pasatuko zaizu mina-**Amaiak**




  Erantzundakoan, ikaskide batekin komentatuko dituzte egindako aukerak.


### 3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Jarri arreta hizkuntzan  

Josu eta Amaiaren arteko elkarrizketan Amaiak terrazatik ikusten dituzten mendiak zein diren azaldu dio Josuri. Horretarako, erlatibozko esaldiak (dagoen/ageri den/ikusten den), erakusleak (hau, hori, hura, horiek...) eta adberbioak (hemen, hor han, ondoan, ezkerretara, eskuinetara, atzean, aurrean, aurrez aurre, goian, behean...) erabiliko ditu.

Euskaraz erreferentzia egiteko nolako esaldiak erabiltzen ditugun jasotzen duen koadroa aurkeztuko diegu ikasleek, adibideez hornituta.

3.2. Hutsuneak bete   

 Esaldietako hutsuneak beteko dituzte ikasleek.

**Erantzunak:**

1.- Aurrez aurre dagoen hori herriko kultur etxea da.

2.- Han urrutira ageri den eraikina Artium museoa da.

3.- Aurrean dagoen hori nire bizilagun kuxkuxeroaren etxea da.

4.- Gure etxetik ikusten den mendia Adarra da.

5.- Nire leihotik ageri den ikuspegia zoragarria da, dena berdea da.



6.- Eskuinetara dagoen etxe hori ikastetxe bat da eta ondoan dagoen hori, hotel bat.

7.- Aurrez aurre errepidea daukat eta han atzean ikusten den hura anbulatorioa da.


8.- Oso goian gaude eta behean dauden horiek gure auzoko etxebizitzak dira.



9.- Eraikin gorri hori taberna bat da eta atzean dagoen hura nire gurasoen etxea da.

10.- Ikuspegi paregabea daukat: Aurrez aurre dagoen etxebizitza-eraikin bat.

  Bakarkako lana bukatutakoan, ikaskide batekin konparatuko dituzte erantzunak.

### 3.3. Kontatu zure terrazatik ikusten duzuna

 Ikasleek etxeko balkoi, terraza edo leiho batetik ikusten dena kontatuko diote ikaskideei. Baina, lehenbizi, idatziz prestatuko dute esango dutena. Horretarako, adibideak eta aurreko puntuan osatu dituzten esaldiak erabiliko dituzte.

  Testua prest dutenean, saia daitezela buruz ikasten eta aurkez diezaiotela ikaskideei . Anima itzazu argazki batez lagunduta aurkeztera, osatuagoa izan dadin. Ea nork dituen gelako bistarik politenak!

**TRANSKRIPZIOA**

AMAIA.— A ze buruko mina!

JOSU.— Bai, ni ere porru eginda nago. Hau da ajea!

AMAIA.— Gaur txintxo-txintxo.

JOSU.— Bai, adinean aurrera goaz. Asteburuan parranda bat eta kito.

AMAIA.— Horixe pentsatzen dut, bai. Ideia bat bururatu zait.

JOSU.— Bota, baina alkoholik gabea bada, hobeto.

AMAIA.— Ikuspegi ederra dugu, ezta?

JOSU.— Bai, primerakoa!

AMAIA.— Baina ez ditugu inguruko mendiak ezagutzen. Ogitarteko bana prestatu eta joango gara bihar, goiz-pasa?

JOSU.— Ez da ideia txarra.

**ETENA**

AMAIA.— Badakizu zein mendi diren?

JOSU.— Ez daukat arrastorik.

AMAIA.— Kalekume hauek... Begira, antenaz beteta dagoen hori Mendizorrotz da. Oso ikuspegi ederra du itsaso aldera.

JOSU.— A, primeran, merezi du joatea.

AMAIA.— Bai, eta Mendizorrotzen ondoan dagoen hori ikusten duzu?

JOSU.— Bai, horko hori?

AMAIA.— Hori Arratzain da. Mendi berezia da, tontorrean gerra-garaiko lubaki bat daukalako.

JOSU.— Lubaki bat?

AMAIA.— Bai lurrean egiten ziren zuloak, soldaduak babestuta egoteko.

JOSU.— Badakit zer diren, harritu egin naiz.

**ETENA**

JOSU.— Hemendik haraino joan nahi duzu oinez?

AMAIA.— Horixe! Eta hor ezkerretara dagoen hori Andatza da. Mendi ederra da eta erraz igoko dugu.

JOSU.— Hori dena bihar? Ados, baina motoz joaten bagara.

AMAIA.— Motoz? Alfer hori! Ez, ez, oinez. Oinetako egokiak jantzi eta kito.

JOSU.— Baina izterraren atzeko aldean mina dut.

AMAIA.— Ibiliz pasatuko zaizu. A zer mendizalea!